

AGUR ASPALDIKO GABIRIA!

Doinua: "Iparragire"

1

Aurten beteko dira ehun urte
Gabiria hasi zala,
ta hirurogeita hamar urte
ni bertan sartu nintzala.
Aspaldiko Gabiri
ezin jat ahaztu niri!
Nire bigarren magala.
Hainbeste ume hazitakoa
ez da amandre makala!

2

Baserri giro apal goxoan
agertu nintzan mundura,
han txastatu neban behin betirako
euskal iturriko ura.
Euskaldun ta erdaldun
gehienak ezezagun,
bihotz beteko tristura;
aldatu barri dan landaratxoa
ez egoan, ez, gustura.

3

Praileak praile, lagunak lagun,
eta guztiak barriak,
baina amarik ez inguruan
ta jo ninduan larriak.
Nun nagon jakin barik
ezin hartu bueltarik,
ustebako lokarriak.
Aitak ez ditu kentzen legeak
Ama Naturak jarriak.

4

Ikasi, jolas, jan eta otoitz
hamar mila gorabehera,
apurka egin nintzan bertara
hezitzailen esanera.
Zer dan bokazinoa?
Hau da okazinoa
bizitzan dogun aukera.
Hor bitartean dabilen Harek
erakarten dau norbera.

5

Sabela beti erdi hutsik ta
erdi beterik platera,
gerra ondoko umeak ginan
ez zan hainbeste aukera.
Etxez etxe korrika
edo Amerika
sarri jo behar eskera...
Nork jan asko ta zer jan gitxi zan;
ez dira onak batera.

6

Ingurugiro txarra zan baina
etxegiroa samurra,
gu ginan giza-landarentzako
sekulako hazi-lurra.
Zer izan behar gendun?
Euskaldun ta fededun,
horra hor bizkarrazurra.
Aro ona zan eta norberak
dantzatu behar haitzurra.

7

Batzuen ustez ezjakinean
sartu ginan prailetzara,
etxeko barri ez dakienak
begitu behar plazara.
Batera hasiarren
bizitzak zer dakarren:
Hareik hona, honeik hara...
Baina gaur ere "Gabiritarrok"
adiskide onak gara.

8

Ez deusku ezer kalterik egin
hor Gabirian egonak,
Eleiz ta Herri zorretan dagoz
ondo daki hau dinonak:
Fedez eta kulturaz
aginpide-arduraz
fundamentuzko gizonak...
Gaur eskerron ta pozez dinogu:
Oi Gabiri, ZORIONAK!

A. Martzel